

IRAKURKETA-GIDA


Leiho bat eta leiho bi

Leire Bilbao

begiko

Leiho bat eta leiho bi

Leire Bilbao



LIBURUAREN AURKEZPENA

Egilea

Leire Bilbao Ondarroan (Bizkaia) jaio zen, 1978an. Gaztetxotan bertsoan aritu ondoren, 2006an eman zuen jauzia literatur mundura *Ezkatak* bere lehen liburuarekin. Urte berean argitaratu zuen umeentzako bere lehen liburua *Amonak nobioa du, eta zer?* Poesian aritu bada ere, haur eta gazte literaturari eskaini dio denbora gehien. Hain zuzen, Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria irabazi zuen *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk* poema liburuagatik.

Irudigilea

Alex F. umetan hasi zen marrazten bere jaioterrian, Sabadellen, baina Gasteizera heltzean bihurtu zuen zaletasuna lanbide. Gasteizko Arte eta Goi-mailako Diseinu Eskolan ikasketak egin ondoren, lanean hasi zen zenbait argitaletxerekin eta publizitate agentziarekin. Hala ere, Alex F.-k bere proiektu pertsonaletan eta bere marrazki-kaieretan azaleratzen du ondoen bere sormen handia.

Liburua

Maialen etxebizitza txiki batean bizi da bere amarekin eta arropak esekitzea abentura itzela iruditzen zaio. Izan ere, bere bihotzeko begiekin ikusten ditu auzokideak eta haien bizimodua. Maialenek bizitzaren alderik ederrena ikus dezake leihoa ateratzen den bakoitzean.

Zergatik irakurri liburu hau?

Lehortutako arropa esekitokitik jasotzea lan astuna bezain abentura bilaka daiteke leihoak zabal-zabal egin eta inguruari arreta jarritz gero. Eta Maialenek ederto daki hori egiten.

Leire Bilbaok gai arrunt baten beste dimentsio bat dakar lan honetan. Gainera, irakurleak protagonistarekin oso estu lotuta sentituko dira, adin berekoak izanik, antzeko kezkak eta buruhausteak izan ahal baitituzte.

Poetikotasun puntua duen lana da, gazteengana mezua ondo hel dadin oso euskarara ulergarrian idatzita dagoena. Irudimen handiko kontakizun honetan ezustean agertzen diren pertsonaia zoragarriek guztiz harrapatuko dute irakurlea.

Liburu eder honek inguruan duguna, eta askotan oharkabea pasatzen zaiguna, hauteman eta balioesten lagunduko die ikasleei.

Liburuak gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena

ARLOKO GAITASUNAK:

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Literatura gozamen-iturritzat hartzea, euskaraz eta haren hizkuntza sistemaz gozatzeko.

Irakurritakoa ulertzea, interpretatzea eta balioestea, norberaren sentsibilizazio estetikoa garatuz.

Ideiak eta sentipenak komunikatzeko gaitasuna garatzea.

Literatura-testua mundua ulertzeko leihoa izatea.

Matematikarako gaitasuna

Hegoaldeko Haizearen aipamenarekin, puntu kardinalen eta espazioko orientazioaren inguruko ezagutza handitzea.

Etxeko patioa, leihoa, saskitxoa... elementu geometrikoak aztertzeke eta sortzeko iturri direla ulertzea.

Arterako gaitasuna

Liburuko irudiek sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko ematen duten aukera ugarietaz ohartzea.

Eguneroko bizitzan, edozein ekintza burutzerako orduan, irudimenak eta espiritu sortzaileak duen garrantziaz jabetzea.

ZE HAR-GAITASUNAK:

Elkarbizitzarako gaitasuna

Maialenen auzoa osatzen duten pertsonen eta familien arteko desberdintasunak errespetatu, ulertu eta aintzat hartzea.

Besteen bizi-proiektuak errespetatzea.

Maialenen asertibitatea eta jarrera baikorra pertsonen arteko harremanetan duen ahalmen positiboaz jabetzea.

Auzokideekin elkarriketarako harreman irekia izatea.

Norbera banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin (familia, auzokideak...) bizi dela ulertzea.

Elkarbizitzaren arauak betetzea, gizarte-harremanetan ongizatea eta harmonia sustatzeko.

Izaten ikasteko gaitasuna

Autonomia arduratsua garatzea agindutako etxeko lanak egitean.

Erabakiak hartzean, ekintzen ondorioak bere gain hartzeko ardura garatzea.

Balioetan hezte

Bakarrrik bizi den amonatsua, Joelen familia, egun osoa lanean etxetik kanpo ematen duen bikotea, guraso izan berri den bikotea... Maialenen bizilagunak gizartearen isla dira. Bere txoko txikitik, auzokideen azalean sartu eta beraien bizimoduaz hausnarketa egiteko gai da liburu honetako protagonista.

Etxean, eskolan, kalean, bizitzan... gizakiak gugandik ezberdinak direnekin harremanetan gaude une oro. Zeinen garrantzitsuak diren besteekiko begirunea, tolerantzia eta enpatia elkarbizitzarako. Liburu honek, ikasleekin besteekin dituzten harremanez eta adiskidetasunaz hitz egiteko aukera emango digu, baita erantzunkizunak hartzeari buruz ere.

JARDUEREN PROPOSAMENA

Irakurri eta ulertu

Asmatu izenburua · 1. jarduera

Auzokideenak, Maialenenak, aurpegian dituenak, bihotzean dituenak... leihoak no-nahi ageri dira kontaketan zehar. Leihoak dira Maialeni bere mundu txikitik irten eta auzokideenean murgiltzea ahalbidetzen diotenak.

Irakurtzen hasi aurretik, hieroglifoak bezalako dedukzio-joko sinple baten bidez, liburuaren izenburua zein den asmatzeko proposatuko diegu ikasleei.

Askatu aho-korapiloa · 2. jarduera

Kontakizunaren lehen kapituluan, Maialenek liburu honetako irakaspen handienetako bati buruz hitz egiten digu: aurrean duguna ikusteko begiak guztiz zabaltzearen beharraz, hain zuzen ere. Baita barruko leihoez ere. Ariketa honek, gelan gaiaz jardun, eta ikasleek Maialen zertaz ari den badakitela ziurtatzeko aukera emango digu.

Ikasleei eskatuko diegu testuko hitzak marren bidez zatitzeko. Ondoren, testua beheko lerroetan berridatziko dute.

Nor bizi da non? · 3. jarduera

Ikasleen oroimen gaitasuna frogatuko dugu lehenik: gogoratuko ote dute non bizi zen bakoitza? Ondoren, liburua hartu eta emaitzak egiaztatzeko eskatuko diegu.

Bigarren atalean, Maialenen deskribapenean oinarrituta eta liburuan bere irudirik azaltzen ez dela aprobetxatuta, 5. A-ko auzokidea marraztu beharko dute. Liburuak itxi eta adi entzuteko eskatuko diegu ikasleei. Liburuaren 10. orrialdea, 5. A-ko auzokideren deskribapena egiten duena alegia, irakurriko diegu bi aldiz, eta, ondoren, marrazkia egingo dute. Azkenik, denen marrazkiak aztertuko ditugu. Deskribapen bera entzun arren, guztiek pertsonaia bera imajinatu al dute?

Bunbuilo anonimoak · 4. jarduera

Narrazioaren argumentua eta pertsonaiak gogorarazteko, ikasleei proposatuko diegu bunbuilo bakoitza zein pertsonaiari dagokion igartzea. Ikasleek zailtasunak badiutuzte, testuok ozenki irakurriko ditugu, pertsonaien antzezpena eginez.

Ordenatu istorioa · 5. jarduera

Narrazioaren egituraren eta gertaeren segidaren ulermena errazteko, irudi bakoitzean ikusten dena modu laburrean azaltzeko esango diegu ikasleei. Ondoren, zenbakien bidez gertaerak modu kronologikoan ordenatzeko proposatuko diegu.

Arropa gurutzatuak · 6. jarduera

Ikasleei eskatuko diegu irudietan ikusten duten arropen izenak laukitxoetan idazteko.

Ahots ozenez: *Piktograma bidezko irakurketa*

7. jarduera

Ipuinean pintzek bizia hartzen duten une magikoa gogoratzeko eskatuko diegu ikasleei. Gogoan al dute pintzek zein forma harrigarri hartzen dituzten? Ondoren, zuzen ala oker zebiltzan egiaztatzeko, testu eta irudien irakurketa egin, eta hutsuneetan irudien izenak idazteko eskatuko diegu. Azkenik, testua ozen irakurtzeko gonbita egingo diegu.

Eragin buruari · 8. jarduera

Liburu honek badu kutsu poetikoa. Bada, ikasleak ere poeta bihurtuko ditugu. Idazleak egin bezala, liburuaren izenburua erabilita, ipuinari amaiera emateko esaldi bat asmatzeko esango diegu. Esaldiak ondo funtziona dezan, zenbait argibide emango dizkiegu: ez da oso luzea izan behar (izenburuak beste silaba gutxi gorabehera), liburuaren argumentuarekin zerikusia izan behar du, eta, ahal izanez gero, errimatu egin behar du.

Zabaldutako leihoak eta deskribatu · 9. jarduera

5. A-ko biolin-jotzaile lotsakorra, Joel irribarretsua, beltzez jantzi ohi diren 2. B-ko aita-semeak.... Maialenek xehetasunez deskribatzen dizkigu bere auzokideak bata bestearen atzetik. Liburuko irudiak eta argumentua oinarri hartuta, Maialenen auzokideak garelako imajinatzeko eta berau deskribatzeko eskatuko diegu ikasleei.

Deskribapenak egitean izenondoak erabiltzen ditugula azalduko diegu, hau da, gauzak nolakoak diren esaten diguten hitzak, eta adibide batzuk emango dizkiegu. Guztiek deskribapena amaitzean, ikasleei proposatuko diegu, banan-banan arbelera irten eta, bertan, deskribapenean erabili duten izenondo bat idazteko, ikasleek idatzitakoak errepikatu gabe.

Baloratu

Etxeko lanak, denon artean hobeto

Maialenen etxean, bera da eskegitako arropak jasotzeaz arduratzen dena. Hasieran purrustaka egiten omen zuen, baina orain izugarri atsegin du.

Etxeko lanei buruz hitz egingo dugu ikasleekin: Zein etxeko lan egiten dituzte? Asteazken bat aldiz? Zein dute gogokoen? Zein gorroto dute? Ondoren, etxeko lanak eta erantzukizunak etxean bizi diren pertsona guztien artean banatzearren garrantziaz hitz egingo dugu denon artean.

Auzokideak

Maialenek orduak ematen ditu auzokideen leihotara begira. Batzuk ongi ezagutzen ditu, baina ez dakizki denen izenak. Beste batzuk, aldiz, ez ditu ezagutu ere egiten, ezta haiek Maialen ere.

Hasteko, ikasleei galdetuko diegu ea etxebizitza-bloke batean bizi diren eta ea beraien bizilagunak ezagutzen dituzten. Proba modura, orri batean ezagutzen dituzten auzokideen izenen zerrenda egitea proposatuko diegu. Ondoren, emaitzak aztertu eta komentatuko ditugu ikasleekin: ez al da bitxia gugandik hain hurbil bizi diren auzokideak ez ezagutzea?

Azkenik, auzokideak ezagutu eta hauekin harreman ona izateak ekar ditzakeen onurei buruz hitz egingo diegu: laguntasuna, adiskidetasuna...

Mahaingurua: Etxetresna elektrikoak, beharrezkoak?

«Bueltatu oraintxe bertan traste zahar hori!», esan du Maialenek etxetresna elektrikoaren dendakoek lehorgailua etxera eramanean. Lehorgailurik gabe ere, arropa lehortu daiteke, baina kasu batzuetan (adibidez, negu hezeetan) lana asko erraztu dezakete.

Denon artean, guztiz beharrezkoak ez diren eta etxean ditugun etxetresna elektrikoaren zerrenda egingo dugu: robot xurgagailua, zuku-makina, mikrouhin-labea, hortzetako eskuila elektrikoa... Banan-banan aztertuko ditugu, ikasleen gogoeta pizteko galderak planteatuz: Guztiz beharrezkoa al da? Bizitza errazten al digu? Argindarra behar du? Ekologikoa al da? Etxetresna hau gabe bizi al gaitezke? Amaitzeko, denon artean ondorio batera iristen saiatuko gara.

Familia eredu anitzak

Ezberdintasunak gero eta pluralagoa den gizartearen parte dira. Azken boladan familiaren egitura aldatu egin da, eta gero eta kontzeptu zabalagoa bihurtu. Esku artean dugun liburua horren isla da: guraso bakarreko familiak, familia ugariak, seme-alabarik gabekoak, pertsona bakarrekoak, sexu bereko bikotea...

Ikasleei proposatuko diegu beraien familiarengan eta lagunen familiengan pentsatzeko, eta, guztion artean, familia eredu ezberdinak irudikatuko ditugu arbelean (bi ama eta bi aita dituzten guraso bananduen haurrak, bi ama edo bi aita dituztenak, aitona-amonekin bizi direnak...).

Ondoren, kolore ezberdinetako kartoi-meheak erabilita (kolore bat familia bakoitzeko), gure inguruko familien karta-joko propioa egingo dugu. Horretarako, kartoi-meheak 11 x 7 cm-ko laukitxoetan moztuko ditugu, eta horietako bakoitzean familiako kide baten marrazkia egin. Beheko aldean familia osatzen duten kide guztien izenak idatziko ditugu (adibidez, Maia, ama Miren, ama Jone), kartekin jolasten ari garenean familia hori zein kartaz osatzen den jakiteko.

Sortu

Idazle lanbidea: *Pertsonaia magikoak*

Maialenek bi pertsonaia magiko ezagutu ditu esekitokiko arropa jasotzen ari zela: arropaz jantzitako Haizea eta pintzekin egindako gizontxoak. Nork ez luke halako pertsonaia miragarritz inguratuta lan egin nahi?

Ikasleei imajinazioari hegan egiten uzteko eskatuko diegu. Beraiek egin ohi duten etxeko lan bat aukeratu, eta lan hori egiten ari direla, antzeko pertsonaia magiko batekin topo egiteko dutela imajinatze eskatuko diegu. Orri batean, pertsonaiaren marrazkia egingo dute. Azkenik, banan-banan, gainontzeko ikasleei egindakoa azalduko diete.

Artistak gara gero!

Ikasleek aurreko atalean sortutako pertsonaia magiko guztiekin horma-irudi handi bat egin dezakegu.

Haize-orratza sortu

Haizea da liburu honetako protagonistetako bat. Batzuetan, zoro dabil; beste batzuetan, aldiz, Hegoaldetik datorrela eta arropa berehala lehortuko duela dio.

Ikasleei honako materiala ekartzeko eskatu diegu: lastotxoak, tapadun plastikozko edalontziak, borragomadun arkatzak, orratzak, harri txikiak eta iparrorratzak.

Hasteko, ikasleei azalduko diegu haizea toki ezberdinetatik etor daitekeela (hegoalde, ipar-mendebalde, etab.) eta haize horietako bakoitzak bere ezaugarriak dituela. Adibidez: ipar-haizea hotza izaten dela, hegoaldekoa epela...

Ondoren, haurrak bosteko taldeetan bilduko ditugu, eta talde bakoitzak, irakaslearen laguntzaz, bere haize-orratza egingo du. Haize-orratzaren gezia egiteko, kartoi mehe batean lauki bat eta hiruki bat marraztuko ditugu. Moztu, eta lastotxoaren alde banatan itsatsiko ditugu. Jarraian, harriak edalontzian sartuko ditugu. Tapa jarri, eta lastotxoa sartzeko izan ohi duten zuloetan, harkatza sartuko dugu (punta barruan eta borragoma kanpoan). Ondoren, lastotxoa arkatzaren borragoman iltzatuko dugu orratz batekin. Azkenik, iparrorratzaren laguntzaz, iparra non dagoen egiaztatuko dugu, eta horren arabera, edalontzian puntu kardinal guztien izenak idatziko ditugu: I (iparra), H (hegoaldea), M (mendebaldea) eta E (ekialdea).

Ikasleak aktore

Liburuan oinarritutako antzerkitxo bat egingo dugu. Guztiek parte hartu dezaten, ikasleak taldeetan banatuko ditugu, eta talde bakoitzak eszena bat prestatuko du. Adibidez, agerraldi hauek egin daitezke:

- Maialenek Haizea aurkitzen du esekitokian, bere arropak soinean dituela.
- Maialenek pintzekin egindako gizontxoa topatzen du.
- Maialenek Lide, bere bizilagun berria, ezagutzen du.

Talde bakoitzak bere atrezzoak prestatu beharko du. Haizea egiteko, adibidez, kamisetak bat eta praka batzuk erratz batean sartzeak balio dezake. Pintzen pertsonaia irudikatzeko, berriz, kartoi mehe batean pintzekin egindako marrazkiak erabili ditzakete. Azkenik, Maialenek Lide ezagutzen duen agerraldia egiteko, bata lurrean eta bestea mahai gainean eseri daitezke, goikoak behekoari pintzen saskitxoa pasatu ahal izateko.

IZENA: MAILA:

LEIHO BAT ETA LEIHO BI

Leire Bilbao

1. jarduera · Asmatu izenburua

Ebatzi hieroglifoak liburuaren izenburua zein den jakiteko. Oso erraza da!



eta



.....

2. jarduera · Askatu aho-korapiloa

Banatu eta idatzi esaldi honetako hitzak, eta ipuin honen irakaspenetako bat zein den jakingo duzu.

amakesatenditbegietanleihookditugulabainasanimatanahaztuegitengarelaleihookzabalteort

IZENA: MAILA:

LEIHO BAT ETA LEIHO BI

Leire Bilbao

3. jarduera · Nor bizi da non?

Gogoan al duzu non bizi diren Maialenen auzokide haiek? Erreparatu irudiei eta adierazi zein pisutan bizi den bakoitza.

(A)



.....

(B)



.....

(C)



.....

Eta 5. A-ko auzokidea? Marraztu, Maialenen deskribapena kontuan hartuta.

IZENA: MAILA:

LEIHO BAT ETA LEIHO BI

Leire Bilbao

4. jarduera · Bunbuilo anonimoak

Irakurri arretaz, eta adierazi zein pertsonaiari dagokion bunbuiloetako bakoitza.

A

Sukaldera etorri aurretik, faborez, jaso lurrean botatako pintza guztiak!

.....

B

Niri ez didazu ziririk sartuko. Ez al duzu ikusten nahi dudan lekuetatik sartu eta inten naitekeela?

.....

C

Lehorgailu bat?! Ez, ez da posible. Ez da hemen. Nahastu egin zarete.

.....

D

Ai, beste galtzerdi suizida bat. Sartuko zenidake saskitxoan oster a ere?

.....

E

Gauza bakar bat eskatu behar dizut. Kontu gehiagor zaintzeko nire zestotscoa. Aspaldian nire gorputz atalak patiora botatzeko zaletasuna hartu duzu eta!

.....

IZENA: MAILA:

LEIHO BAT ETA LEIHO BI


Leire Bilbao

5. jarduera· Ordenatu istorioa

Erreparatu irudiei eta jarri zenbakiak, istorioa ordenatzeko. Idatzi une bakoitzean zer gertatzen ari den.









IZENA: MAILA:

LEIHO BAT ETA LEIHO BI

Leire Bilbao

6. jarduera · Arropa gurutzatuak

Hona hemen Maialenen eta bere auzokideen
eskitokietan aurki daitezkeen arropetako batzuk.
Erreparatu zenbakiei, eta idatzi hitz gurutzatuak.

A crossword puzzle grid with 10 rows and 10 columns. The grid is partially filled with clothing items and numbers. The items are: 1. A pink bra (top left). 2. A blue and yellow striped bikini bottom (top right). 3. A red and blue striped sock (middle left). 4. A blue skirt (bottom left). 5. A yellow jumpsuit (bottom left). 6. A red and white plaid shirt (bottom right). 7. A blue pair of jeans (middle right). 8. A blue pair of pants (bottom right). 9. A blue pair of pants (bottom right). 10. A blue pair of pants (bottom right). The numbers are: 1 (top center), 2 (top left), 3 (top right), 4 (middle left), 5 (middle left), 6 (middle left), 7 (middle left), 8 (middle right), 9 (bottom left), 10 (bottom left).

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

IZENA: MAILA:

LEIHO BAT ETA LEIHO BI

Leire Bilbao

7. jarduera • Piktograma bidezko irakurketa

Idatzi irudien izenak eta osatu lerroak. Ondoren,
irakurri testua ozen.



.....-z eginiko gizontxo formaz

aldatzen hasi da.



..... bat luzatu du,



..... bat gero.



.....

forma hartu du,



.....

..... zabalarena,



..... -rena,



..... -arena. Mila eta bat aldera egin

ditu.

8. jarduera • Eman buruari

Irakurri ozen liburuko azken esaldia. Asmatu antzeko
beste esaldi bat, hasiera berdina erabilita.

Leiho bat eta leiho bi,

IZENA: MAILA:

LEIHO BAT ETA LEIHO BI

Leire Bilbao

9. jarduera · Zabaltu leihoak eta deskribatu

Imajinatu Maialenen parean bizi zarela, eta egunero zure etxeko leihotik ikusten duzula. Erreparatu inudari eta deskribatu Maialen, honako galderei erantzunez:

- Nolako itxura du?
- Nolako izaera du?
- Zer egitea atsegin du?



A large yellow rectangular area with a dashed line for writing. It has a small yellow flower icon in the top left corner and a small yellow flower icon in the bottom right corner.

IZENA: MAILA:

LEIHO BAT ETA LEIHO BI

Leire Bilbao

Irakurmen-testa

Irakurri galderak arretaz, eta markatu erantzun zuzena.

1. Non eta norekin bizi da Maialen?

- ☐ a Etxebizitza handi batean, ama eta aitarekin.
- ☐ b Etxebizitza txiki batean, amarekin.
- ☐ c Baserri batean, ama eta amonarekin.

2. Batzuetan arropa garbitegira eramaten dute. Zergatik?

- ☐ a Neguan arropari lehortzea kosta egiten zaielako.
- ☐ b Abentura itzela iruditzen zaielako.
- ☐ c Amak bertan lan egiten duelako.

3. Zer gertatu zaió 4. B-ko amonari?

- ☐ a Hil egin da.
- ☐ b Geranioak lehortu zaizkio, gutxi ureztatzeagatik.
- ☐ c Katuak geranioak jan dizkio.

4. Zergatik haserretu da Maialen lehorgailua ikustean?

- ☐ a Ez delako beraiek eskatu dutena.
- ☐ b Txirrinaren hotsa entzutean Haizeak ihes egin duelako.
- ☐ c Arropa esekitzen jarraitu nahi duelako.

Erantzunak

LEIHO BAT ETA LEIHO BI

Leire Bilbao

Asmatu izenburua · 1. jarduera

Leiho bat eta leiho bi.

Askatu aho-korapiloa · 2. jarduera

Amak esaten dit begietan leihoak ditugula, baina sarritan ahaztu egiten garela leihoak zabaltzeaz.

Nor bizi da non? · 3. jarduera

- a) 2. B
- b) 2. A
- c) 3. A

Marrazkiari dagokionez, erantzun librea. Egiaztatu marraztutakoa deskribapenarekin bat datorrela.

Bunbuilo anonimoak · 4. jarduera

- a) Ama
- b) Haizea
- c) Maialen
- d) Lide
- e) Pintzaz eginiko gizontxoa

Ordenatu istorioa · 5. jarduera

2. Haizeak ihes egin du, arropa lurrian botata utziz.
3. Pintzekin egindako gizontxoa agertu da Maialenen esekitokian.
4. Lide, auzokide berria ezagutu du. Saskitxoa jaitsi dio Maialeni, erori zaion galtzetina bertan sartzeko eskatuz.
1. Haizea azaldu da, Maialenen arropa soinean duela.

Arropa gurutzatuak · 6. jarduera

1
B
U
2 K U L E R O A K
3 A L K A N D O R A
4 P R A K A K
R
5 G A L T Z E T I N A K
T
A
K
6 M I N I G O N A
7 P I J A M A

Piktograma bidezko irakurketa · 7. jarduera

Pintzaz eginiko gizontxoak formaz aldatzen hasi da. Esku bat luzatu du, hanka bat gero. Zaldi forma hartu du, txori hego zabalarena, itsasontziarena, traktorearena... Mila eta bat aldaera egin ditu.

Eragin buruari · 8. jarduera

Erantzun eredua:

Leiho bat eta leiho bi, zu alde batean eta bestean ni.

Leiho bat eta leiho bi, Haizearekin kuxkuxean gustura nago ni.

Zabaldur leihoak eta deskribatu · 9. jarduera

Erantzun eredua:

Maialen neskak alaia eta irudimentsua da. Kuxkuxero samarra da, eta esekitako arropa jasotzen duen bitartean, auzokideei begira egotea gustatzen zaio. Oso lagunkoia da, beti dago lagun berriak egiteko prest. Ile marroixka bi mototsetan bilduta eraman ohi du, eta, begien aurrean, betaurreko biribil-biribilak ditu. Bere gorputz luzearen gainean, marradun kamisetak eta praka bakeroak janzten ditu maiz.

Irakurmen-testa: 1 b; 2 a; 3 a; 4 c.